



TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak «BJC Arriagan» zikloari ekingo diote berriro, urtea amaitu aurretik bi kontzertu eskainiz

- Carlos Sarduy tronpetista eta konpositorea, nazioarteko artista handien kolaboratzailea, laukote formatuan iritsiko da Bilbora azaroaren 7an, *Groove messengers* proiektuarekin.
- Abenduaren 12an, Clarence Bekker Band izango dugu Arriagan, CB Milton izenez ere ezaguna den Clarence Bekker kantari ahaltsua buru duela, soul, funk, jazz eta pop nahasketa indartsua eskainiz.

Bilbo, 2023ko irailaren 26an.- Bilbaína Jazz Clubek eta Arriaga Antzokiak sustatutako «BJC Arriagan» zikloak beste bi kontzertu eskainiko ditu aurten, 2023 amaitu aurretik.

Lehena azaroaren 7an izango da. **Carlos Sarduy** tronpetista, perkusionista, pianista eta konpositore kubatarra *Groove messengers* izeneko bere proiektuarekin etorriko da gurerara. Habanan jaioa, Sarduy 4 urterekin hasi zen tronpeta jotzen. Izan ere, haurtzaro berezi eta paregabea izan zuen, oso goiz hasi baitzen musikari gisa garatzen. Bere soinuagatik, musikaltasun handiagatik eta moldakortasun musikal apartagatik goraiatu ohi dute. Bere konposizioetan kaleetako tradizio afrokubatarraren eragina antzematen da, baita Jazzaren nazioarteko eszenarena ere. Kubako, Amerikako eta Afrikako tradizioetako maisuetan inspiratuz, Sarduyk soinu propio bat garatu du, zeinak jazzaren eszenan erreferentzia bihurtu baitu, eta flamenkoan, Kubako musika herrikoian eta musika modernoan ere sartu-irtenak egin izan baititu. GRAMMY saria jaso zuen Chucho Valdésekin batera Irakére 40-rengatik eta bi LATIN GRAMMY irabazi ditu. 50 disko baino gehiago grabatu ditu —horietako asko diskoetxe ospetsuentzat— eta artista handiekin aritu da elkarlanean, hala nola Chucho Valdés, Bebo Valdés, Steve Coleman, David Murray, Esperanza Spalding, Buika, Ainhoa Arteta, Mariza eta Ojos de Brujo-rekin.

«BJC Arriagan» zikloaren bigarren proposamena abenduaren 12an iritsiko da. Egun horretan, emanaldia izango dugu **Clarence Bekker Band** taldearen eskutik: taldeak funk, jazz eta pop arrasto handiak ditu, eta kantariak soularen energiak janzen du. Izan ere, Clarence Bekkerrek entzuten dion pertsona ororen arima ukitzeko dohaina du. Haren ahots sakon eta zirrargarriaren bidez, ikusleak liluratzen ditu, zeinak amore ematen baitute haren magnetismoaren aurrean. Egindako ibilbide luzean zehar, arrakasta handiak lortu ditu CB Milton goitizenaekin. Horrez gain, ahots nagusia izan da nazioartean ezagunak diren zenbait taldetan, hala nola Swinging Soul Machine 08001 edo Playing For Change-en —talde horiekin sarean dituen bideoek 200 milioi bisitatik gora dituzte—, eta munduko 7 bira egin ditu. Bizitzako ezbeharrak zirela eta, arrakasta biziko bere bidetik aldendu behar izan zen une batez, baina jada itzuli da,

indar askoz handiagoarekin eta haren izena duen banda batekin, zeina Bartzelonako musikari handiekin batera osatu baitu. Haiekin disko bat grabatu zuen, "Changes" (2020), eta hari esker proiektu indartsuenetako bat bezala finkatu dira musika beltzaren panoraman.

ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK

- 21 euro
- Dagoeneko salgai www.teatroarriaga.eus helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

Informazio gehiago:
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus